

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Garbiñe Sioniz Barrenkua

*Ea, Bizkaia
(1935)*

Aurkibidea



Biografia



1935ean jaio zen Eako etxe batean, baina bizi guztia Angelutxu auzoko Erdiko baserrian bizi izan da. Ama Ibarruriko etxekoandrea eta Aita Angelutxu auzoko Urtia baserriko gizasemea izan zen. Aita urte asko Ameriketatik ibili ondoren, Euskal Herrira bueltatu zenean, Firestone enpresako langilea izan zen. Zazpi neba-arrebatatik hirugarrena izan zen bera. Guztiek lan asko egin behar izan zuten etxetik kanpo aitarene gaixotasuna dela-eta. 15 urterekin hasi eta ezkondu zen arte ume jagole, neskame, interina...lanetan ibili zen. 33 urterekin Berritxuko Lorenzo Eizagirrerekin ezkondu zen eta bi seme-alaba izan zituzten.

Zintak

EAA-024

- **Proiektua:** Eako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gonzalez, Andere
- **Data:** 2014-01-04
- **Iraupena:** 65 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Unamuno, Arianne

Pasarteak

1. Eara bizitzera

- **Erref:** EAA-024/003
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:03:00. **Bukatu:** 00:05:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Aita Ameriketatik etorritakoan, Firestonen bizi izan ziren eta handik Eara etorri ziren, aita sabeleko minez ibiltzen zelako. Etxe hura botata dago. Non zegoen kontatzen du. Zazpi senide ziren.

2. Amamak jo zuenekoa

- **Erref:** EAA-024/005
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:08:08. **Bukatu:** 00:10:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Amamak jo zuenekoa kontatzen du, hark etortzeko deitu eta kasurik ez egitearren. Amamak urtetan gogoan izan zuen eta pena zeukan jo zuelako.

Transkripzioa

- Amuma zorrotza bai, baia ama ona.
- Ama ona.
- Baia amuma zuekaz zorrotzaue zan? Ez...
- Ez! Baten jo nauen amumak eta, beittu, neuk euki kulpie.
- Ze ein zendun?
- Ariñeketan eskapau txopo azpittik eta hori, berak ez deitzen ezer errestarik eiñ. Eta "etorri ume ba, etorri ba" ta "ni ez noie ze jo eingo dostezu", eta begittuten naben eta idxe neure ondun bera, martxan!. Ordun urtik nik be ba... lau edo bost. Etxera etorri nitzen "ume, untxe jo ein biher zaittut /bizaitxut/ ba, sekule ez zaittut eiñ baiña". "Menuda paliza". Hori ez jat niri ahaztu be eitten sekule. Gehidxau ez. Eta gero beti esaten dosten, Burzeñan bizi zin gero harek, ze gure...tia Birjinia ezeutu zendun?, tia Birjinian ama ha be, eta tia ta Burzeñan bizitzen. Eurekin erun eban /eruban/ tiak Burzeñara, eta etorten jakun ba frutiaz eta beti geuzakin amuma bertora. Hamintxe egoten zan. Eta akordun eukitxen dot "ume, esan biher dotsut /bitzut / ba", beti esaten dosten, "zelan jo zaittuten", bera ha peniaz.
- Berak be eukiko eban gordeta hori penie edo...
- Bai, beti esaten dosten. Gure ama ez zan joten eta holan, ez zan. Harek esan geuzie. "Zelan jo ete zaittun ba, umia?" "ba txarto ein nabelako" . Eskapau, badakixu, ha berotute datorren atzetik, joteko. Beste preguntarik?
- Eta amak ze eitten eban, baserridxen lan, edo kanpuen?
- Ez, gure amak etxien beti, bera famelixe hazten eta kanpuen biharra, baserridxen, edozetan, tokaten zana, dana eitten eban harek, beti.

3. Aita eta aitita Ameriketan

- **Erref:** EAA-024/008
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:13:59. **Bukatu:** 00:16:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Kanpora lanera

Laburpena:

Aitak Firestonen lan egin zuen eta hango urak izorratu zuela esaten du. Amak ondo zaintzen omen zuen. Aita Urtiakoa zen eta Amerikan denbora asko egindakoa. Aitaren aita hargina zen eta Amerikan elizak-eta egindakoa zen. Elkarrizketa egiten ari diren etxea ere aititak egina da.

4. Ameriketara lanera

- **Erref:** EAA-024/011
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:18:30. **Bukatu:** 00:20:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Kanpora lanera
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Aita eta ama ezkondu zirenean, Firestonera joan ziren. Aitita lanik gabe zegoenez, Amerikara joan behar izan zen. Orain ere berdintsu dela kontatzen du.

5. Eskolan sua pizten zuten berotzeko

- **Erref:** EAA-024/014
- **Iraupena:** 0:02:57. **Hasi:** 00:24:04. **Bukatu:** 00:27:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Natura » Meteorologia

Laburpena:

Natxituko eskolan ibili zen. Hogeita hamazortzi neska-mutil ziren gelan. Neguan sua pizten zuten gelan berotzeko eta dena kez betetzen zen. Neguan hotz handia pasatzen zuten, frakarik ez baitzuten erabiltzen.

Transkripzioa

- Ni umie nazela etorri nitzen. Beti Natxitture. Sei urteaz hasi nitzen Natxittun. Natxittun gu danok.

- Natxittuko eskolan?

- Gu Natxitture jun gara beti, neba-arrebok, danok. Señorita Aurora maistrie. Haixe maistra. Ta ondo, primeran.

-Zelakue zan lehengo eskolie ba?

-Badakizu zemat lagun egoten giñen? Mutil eta neska? Hogeta hamazortzi eta... egoten giñen.

-Eta zelakue zan? Ze akordu dekozu eskolakue?

-Eskolakue nik, eskolakue dekot... ona dekot. Neu ez nitzen lehenengue, ni tarteko bat, besterik ez. Hotza pasaten gendula haundixe, eta eitten zanien biztu estufie, ataraten zan keiaz, atzera dana ein biher e... [...] Eta gure tiok Urtiatik, Elenan aittittek, eruten eban burdixen egurre, eta hutsittu baiño ez eban eitten...hasten zan maistrie edo... zaharrena dana edo, hori (sue) eitten, danak bentanak eraindte, egon ezin, danak dardadaka. "Aquello tengo lo que más". Eta geure bidie, eukitxen gendune, tretxue, hotza, hotzak!, orduen ez zan prakarik be eruten eta...

- Zelan juten ziñien ba, hametik hara?

- Oiñez jun eta etorri eta udan beruek erreten baiña neguen pasaten genduzen hotzak, hori danak esango dotzue. Horretatik ondo baiña... ta baitte hanketatik be, baiña zerik barik, praka barik, ostantzien e honarteko edo holan be bai, zerak, kaltzerdixek onak eta... hori bai, hori bai, ondo

botaten gaittuen. Eneei, gure ama horretan itzela zan, biher dan /bidan/ modokue zan ha andrie. "Limpia y..." Itzela ixen zan ama.

6. Neskame Bilbon, egonaldi gogorra

- **Erref:** EAA-024/018
- **Iraupena:** 0:03:36. **Hasi:** 00:31:55. **Bukatu:** 00:35:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak

Laburpena:

Neskame egon zenean, lurrari disdira ematen aritzen zen. Elgorriaz gaixotu zen eta medikuak xiringarekin sendagaia eman zion. Gaizki pasatu zuen, ez zuten aintzat hartzen eta.

7. Taloak eta morokila

- **Erref:** EAA-024/022
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:42:11. **Bukatu:** 00:43:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artoa

Laburpena:

Talo asko jaten zuten; talo zopak eta morokila ere bai. Ogia ere beti jan izan dute, amak egindakoa.

8. Gari-jotea auzolanean

- **Erref:** EAA-024/024
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 00:44:36. **Bukatu:** 00:47:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Baserria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

Gari-jotea izaten zenean, jatekoa eskaintzen zitzaien laguntzera etortzen zirenei. Baserri txikiek hiruk batera egiten zuten, adibidez. Zer jaten zuten kontatzen du. Pasadizo bat kontatzen du. Lurrean jaten zuten, "txibua" jarrita.

9. Ura ekarri egin behar

- **Erref:** EAA-024/025
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:47:30. **Bukatu:** 00:48:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

Ura hartzeko potzua zeukaten. Hura lehortzen zenean, udan, errekatik ekarri egin behar izaten zuten barriketan. Argindarra beti eduki izan dute.

10. Gerraostean eskean etortzen zitzaizkien

- **Erref:** EAA-024/028
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:50:57. **Bukatu:** 00:52:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Gerraostean ez zuten goserik pasatu baina ezer ez zutenak etortzen ziren eskean. Kaleko jendeak, Ean, gosea pasatu zutenak ezagutzen ditu.

11. Euskararen debekuari aurre

- **Erref:** EAA-024/029
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:52:43. **Bukatu:** 00:53:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Euskararik ezin zen erabili. Eskolan ume batzuek aurre egiten zioten debekuari.

12. Abadeari beldurra

- **Erref:** EAA-024/030
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:53:31. **Bukatu:** 00:55:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Udaletxe azpian militarren koartela egon zen urte askoan. Militarrei baino abadeei beldur handiagoa izaten zien Garbiñek.

13. Aste Santuko prozesioak

- **Erref:** EAA-024/033
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:57:15. **Bukatu:** 00:58:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Aste Santua

Laburpena:

Elizak botere handia izaten zuen. Aste Santuan prozesioak egiten ziren Ean eta Natxitun. Nolakoak izaten ziren kontatzen du.

14. Gari-jotea nola egiten zen

- **Erref:** EAA-024/034
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:58:40. **Bukatu:** 01:00:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

Gari-jotea nola egiten zuten kontatzen du.

15. Hiru irin desberdin

- **Erref:** EAA-024/036
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 01:01:31. **Bukatu:** 01:03:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Garia
- Baserría » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

Gari-joteko kontuak azaltzen jarraitzen du. Hiru irin desberdin egiten zituzten, Ibarrangeluko errota. Gizaburuagara ere joandakoa da, estraperlo kontuengatik. Pasadizo bat kontatzen du.

16. Irinarekin beldurrez

- **Erref:** EAA-024/037
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 01:03:56. **Bukatu:** 01:04:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Errota
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Ibarrangeluko errota non zegoen kontatzen du. Irina astoan hartuta beldurrez etortzen ziren.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-01-19

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com